



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

lurretako Udala

2018 ekitaldian lurretako kirolariei norbanako kirola sustatzeko eta 2018ko ekitaldian kirol jarduerak egiteagatik diru-laguntza emateko deialdia eta oinarri arautzaileak.

Alkateak, aurtengo uztailaren 26ko 642/2018 Dekretuaren bidez, honako hau erabaki du:

Lehenengoa: «lurretako kirolariei norbanako kirola sustatzeko eta 2018ko ekitaldian kirol jarduerak egiteagatik diru-laguntza» deritzon diru-laguntza emateko deialdia onartzea.

Bigarrena: «lurretako kirolariei norbanako kirola sustatzeko eta 2018ko ekitaldian kirol jarduerak egiteagatik diru-laguntza» deritzon diru-laguntza emateko Oinarri Arautzaileak onartzea (Eranskina).

Hirugarrena: Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea.

Laugarrena: Ebazpen hau Kontu-hartzaitza Sailari eta Herritarren Arreta Zerbitzuari jakinaraziko zaie.

Denek jakin dezaten adierazten da.

lurretan, 2018ko uztailaren 26an.—Alkatea, Iñaki Totorikaguena Sarrionandia

**ERANSKINA**

Kirolaren arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragingarria izan dadin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 29. artikuluan adierazitakoa jaso nahi da; halaxe dio artikuluko horrek: «Kirola garatzeko programa publiko guztiek barneratuko dute emakumeen eta gizonen artean benetako eta eragingarria den berdintasunaren printzipioa, eragingarritasunez kontuan har dadin, programok diseinatzean nahiz gauzatzean». Horregatik, deialdi honen bidez, lurretako Udalak emakumeen kirola sustatuko du eta kirolari emakumeen alde egingo du; emandako norbanako diru-laguntzak %50 gehituz.

1. Helburua

- 1.1. Oinarri hauen helburua, lurretako kirolariei norbanako kirola sustatzeko ematen zaizkien diru-laguntzak arautzea da, baldin eta 2018an lurralde-eremu desberdinetan (nazioartean, estatuan, autonomia-erkidegoetan, probintzia berruan eta udalerrian) kirol-jardueretan parte hartu badute.
- 1.2. Laguntza hauen xedea da, 2018ko ekitaldian norbanako kirol jardueretarako prestaketak eta parte-hartzeak eragiten dituzten gastuak finantzatzea, emakumezkoen kirola lagunduz.
- 1.3. Diru-laguntza hau norgehiagoka erregimean emango da.

2. Pertsona onuradunak

- 2.1. Laguntza hauek eskatu ahal izateko, eskatzaileek (norbanako kirolariak) edo bere legezko ordezkariak, eskaera aurkezten den unean, azken bost urteetan eta etengabe, lurretan errolatuta egon beharko dira, dagokien kirol-federazioaren lizentzia izan beharko dute eta 2018an lurralde esparru desberdinetan (nazioartea, estatua, erkidea, probintzia eta herria) kirol-jarduerak egin beharko dituzte.
- 2.2. Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zehatuta dauden pertsona fisikoek ezin izango dute agindu honetan arauturiko laguntzen deialdian parte hartu, ezta hartarako ezgaitzen dituen legezko debekuen eraginpean daudene ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoarekin ados.

3. Diruz lagunduko den gehienezko zenbatekoa guztira

- 3.1. Deialdi honetara bideratutako kreditua mila eta bostehun (1.500,00) eurokoa da, 231.480.01 aurrekontu atalaren pentzuan.
- 3.2. Laguntza hauek eta beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak bateragarriak izango dira, Diru-laguntzak Arautzeko Ordenantzaren zehaztutakoaren arabera, beti ere beraien zenbateko osoa, norbanako kirol jardueretarako prestaketak eta parte-hartzeak eragiten dituzten gastuen zenbateko guztia gainditzen ez duen bitartean.

4. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

- 4.1. Laguntzak norbanako kirol jardueretarako prestaketak eta parte-hartzeak, 2018ko ekitaldian eragiten dituzten gastuak ordaintzeko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrean eta Diru-laguntzen Udal Ordenantzaren zehaztutako baldintzetan.
- 4.2. Honako hauek eragindako gastuak lagundu ahal izango dira diruz:
 - a) Kirol federazioak eskatutako lizentziak, izen-emateak, aseguruak eta bestelako gastuak.



- b) Lehiaketetan edo kirol-jardueretan parte hartzeko nahitaezko joan-etorriak (kirol-materialen eta ekipamenduen garraioa barne) eta egonaldiak (ostatua eta mantenua) eragindakoak.
 - c) Kirol-materiala eta ekipamenduaren erosketa, alokairua eta konpontzeak.
 - d) Gimnasio eta kirol-instalazioen erabilera.
 - e) Osasun azterketak (esfortzu probak), eta aurreikusitako kirol-helburuak lortzeko beharrezkotzat jo daitezkeen beste batzuk.
- 4.3. Ez dira diruz lagunduko honako gastu hauek:
- a) Farmazia eta protesi-produktuetatik eratorritako fakturak.
 - b) Bestelako gastuak, baldin eta, balioespen-batzordearen ustez, laguntzaren xedearekin bat ez badatoz.

5. Laguntzen zenbatekoa

- 5.1. Eskatzaile bakoitzeko emango den laguntzaren zenbatekoa ezingo da izan berehun (200) euro baino gehiagokoa.
- 5.2. Kirolaria emakumezkoa bada, eskatzaile bakoitzaren zenbatekoa %50 gehituko da; hortaz, kasu horretan gehienezko zenbatekoa hirurehun (300) eurokoa izango da eskatzaile bakoitzeko.
- 5.3. Eskabide-kopuruaren arabera zenbatekoa erabilgarri dagoen eta deialdian adierazi den aurrekontuaren zenbatekoa baino altuagoa izanez gero, horien guztien arteko hainbanaketa egokia egingo da.
- 5.4. Laguntza hauek eta beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak bateragarriak izango dira, Diru-laguntzak Arautzeko Ordenantzan zehaztutakoaren arabera.

6. Eskabideak eta aurkezteko epea

- 6.1. Eskaera eta aurkeztu beharreko agiriak:
 - lurretako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira diru-laguntzaren eskabideak (G-01 eredu) lurretako Udaleko alkate-udalburu jaunari zuzenduz (HAZ-Herritarren Arretarako Zerbitzua: Bidebarrieta, 5. 48215-lurreta); edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako bitartekoren baten bidez ere aurkeztu ahal da. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:
 - NANA.
 - Dagokion Federazioak luzatutako ziurtagiria, federatutako pertsonaren izena, kategoria eta ekitaldi honetan egindako kirola zehaztuz.
 - Indarrean dagoen ekitaldian burutako edo burutzear dauden ekintzen eta lehiaketen planifikazioa edo programazioa, eta sortutako gastuen aurrekontu zehaztua.
 - Eskatzailearen kirol historia (emaitzak eta sailkapenak) dagokion Kirol Federazioak oniritzia ematen duena.
 - Hirugarrenen alta inprimakia edo aurkeztu izanaren aipamena. (03 eredu)
 - Diru-laguntzaren eskabideak aurkezteko ereduak, 48215-lurretako HAZ-Herritarren Harreta Zerbitzuan (Bidebarrieta, 5), Ibarretxe Kultur Etxean (Bidebarrieta, 4) eta web-orriko administrazio-izapideen eskuliburuan (http://www.iurreta.eus/es-ES/Manual%20de%20trmites/20180502_Manual%20Euskera.pdf) eskuratu ahal izango dira.
 - Eskabidea aurkezterakoan, oinarri hauetan eta Diru-laguntzak Arautu dituen Ordenantzan zehaztutako arauak onartzen direla ulertuko da.

**6.2. Aurkezteko epea.**

Eskabideak aurkezteko epea iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2018ko irailaren 30ean bukatuko da (egun hori barne).

6.3. Eskatzaile adingabea bada, agiriak aurkezteko erantzukizuna aitarena, amarena edo adingabearen lege-ordezkararena izango da.**7. Salbuespenak**

Diru-laguntzak arautu dituen ordenantzan ezarritako arrazoiez gain, ezingo dute diru-laguntzarik jaso eskabideak aurkezteko egunean Udal Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituzten eskatzaileek, edo aurretik emandako diru-laguntzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu ez dituztenek. Egiaztatze agiriak aurkezteak ez dakar, besterik gabe, aurkeztutako justifikazioaren onespena.

8. Eskabideak baloratzeko irizpideak

- 8.1. Laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da. Prozedura horretan, laguntzak emateko aurkeztutako eskabideak elkarrekin konparatzen dira, haien arteko lehentasuna ezartzeko.
- 8.2. Iurretako Udalak erabakiko du zein egitasmo onetsi (eskatutako baldintzak bete behar dira eta bazterketa arrazoirik ez); laguntzak emateko ondoko irizpide eta balorazio mugak hartuko ditu kontuan (gehienez 10 punturaino).
 - a) Kirol-historiala: Kirol-jardueran partaidetza eta promozioa, trebetasunak, Kirol-arrakastak eta lortutako sailkapenak (5 punturaino).
 - b) Kirol jardunbidea: Konplexutasun teknikoak, erabilitako diziplinak, zailtasun maila, entrenamendu-sistema (5 punturaino).
- 8.3. Emakumezkoen kirolaren sustapena: Banakako laguntzaren zenbatekoa %50 areagotuko da.
- 8.4. Proiektuak aztertu eta teknikoaren balorazioa jaso ondoren, eskumenak dituen organoak egokiak diren laguntzak emango ditu, beti ere oinarri hauetan honetarako jarrita dagoenaren gehiengoa pasa gabe.

9. Prozeduraren instrukzioa

- 9.1. Prozeduraren organo instrukzio-egilea hauxe izango da: Gizarte Ongizateko Batzordea.
- 9.2. Eskabideak jasotakoan, haien azterketa eta egiaztatpena Balioespen Batzordearen zeregina izango da. Batzorde hori honako hauek osatuko dute:
 - Alkate-udalburua edo eskuordetutako Gizarte Ongizateko Batzordeko pertsona bat.
 - Gizarte Ongizateko Batzordeko idazkaria.
- 9.3. Aurkeztutako eskabideak aztertu ostean eta, hala badagokio, hutsak konpontzeko epea amaituta, Balioespen Batzordeak txostena egingo du, bertan, gutxienez, honako datuak jasota: bazter utzitako eskabideak, horiek baztertzeko zergatia, aintzat hartutako eskabideak, horiei eman beharreko laguntzaren kopurua eta oinarrietan aurreikusitako eskakizunak betetzen direlako ziurtagiria.
- 9.4. Organo bideratzaileak, txostena jaso ostean, beste txosten bat egingo du, eta, bertan adieraziko denez, bere esku duen informazioaren arabera onuradunek laguntzak jasotzeko beharrezko eskakizun guztiak betetzen dituzte.
- 9.5. Organo bideratzaileak ebazpen-proposamena egingo du Balioespen Batzordeak emandako txostena oinarri hartuta, diru-laguntza ematen duen organoaren aurrean, hau da, Alkatea.
- 9.6. Ebazpenak honakoak jasoko ditu, beren-beregi:
 - Onuradunak eta horien zenbatekoak.



- Balorazio-irizpideak.
- Gainerako eskabideei uko egiteko beren-beregiko aipamena.

- 9.7. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Epea igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin zaiela ulertuko dute interesatuek, administrazioak erantzunik eman ez duelako.
- 9.8. Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikuluan aurreikusitakoaren arabera emango da jakitera ebazpena.
- 9.9. Berariazko ebazpen-egintzen kontra, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da egintza eman zuen organoaren aurrean; bestela, zuzenean, administrazioa-rekiko auzietarako errekurtsoa ipini ahal izango da.

10. Diru-laguntzen zenbatekoa eta ordainketa

- 10.1. Eskatutako gastuen %100 finantzatu ahal izango da, oinarri hauetan xedatutako kreditu osoa muga dela.
- 10.2. Onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa Balioespen Batzordeak egindako txostenean zehaztutakoa izango da, bederatzigarren oinarrian finkatutako irizpideak oinarri hartuta.

11. Diru-laguntzaren justifikazioa

- 11.1. Emandako diru-laguntza zurrizteko, Diru-laguntzen Ordenantza Orokorreko 14. artikuluaekin bat etorriz, oinarrietan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik, 2019ko urtarrilaren 31a baino lehen, hurrengo dokumentazio eta udal honek onetsitako ereduak aurkeztuz beharko dira:
 - Justifikazioa (07 eredu).
 - Justifikazio memoria.
 - Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
 - Justifikazio kontua, fakturen eta ordainketa ziurtagirien kopiekin batera (08 eredu).
 - Helburu berberarekin beste erakunde batzuei eskatutako finantzazio iturrien eta/edo eskatutako diru-laguntzen zerrenda (emandakoak, ebazteko daudenak, e.a.). Aurkeztu ezean, eskatu ez direla ulertuko da.
 - Egindako publizitatearen ale bat.
- 11.2. Diru-laguntza ematen duen organoa arduratuko da hura ondo justifikatuta ote dagoen begiratzear, baita diru-laguntzaren helburu zen jarduera bete ote den zaintzeaz ere.
- 11.3. Aurrikusitako gastuak burutu ez badira, laguntzak jaso dituzten onuradunak jasotako zenbatekoa bueltatzera behartuta daude.
- 11.4. Administrazioak eskatutako egiaztapenak, herri Artekaritzaren ardura diren kontrol finantzarioak eta Kontuan Epaitegiko Legedira lotuta dauden beharrak betetzera behartuta daude laguntza jaso dituzten onuradunak.
Baldintza hau bete ezean, emandako laguntza galduko da.
- 11.5. Diruz lagundutako jarduera iragarri eta egiteko erabilitako euskarri guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko dira.

12. Onuradunen betebeharrak

- 12.1. Onuradunak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako printzipio orokorrak bete beharko ditu, beren jardueretan.
- 12.2. Onuradunak egindako dokumentu eta publizitate guztietan, lurretako Udala diruz lagundutako jardueretako babesle gisa agerrarazi beharko du, Udaleko armari ofiziala eta «lurreta Eleizateko Udala» izen osoa txertatuz.



- 12.3. Ezingo dute erabili hizkuntza sexistarik beren dokumentazioan, publizitatean, irudietan edo materialetan; irudi diskriminatzaileak eta estereotipo sexistak saihestuko dituzte; eta sustatuko duten irudian berdintasun balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna zein rolen eta genero-identitateen aniztasuna islatuko dira.

13. Arau-haustekak, zehapenak eta itzulketak

Diru-laguntzen ordenantzan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onetsi zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoa beteko dituzte diru-laguntzari dagozkien arau-haustekak, zehazpenak jartzea eta itzultzeko arrazoiak.

14. Araubide juridikoa

Oinarri honetan jaso ez diren kontuetarako honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzak ematea arautzen duen ordenantza, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onetsi zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.